



El desarrollo de la formación integral del estudiantado en la Universidad de Deusto a través de la innovación docente

Deustuko Unibertsitateko ikasleen prestakuntza integrala garatzea irakaskuntzaren berrikuntzaren bidez



Este libro recoge buenas prácticas académicas y de gestión implementadas por el profesorado de la
Universidad de Deusto.

© Unidad de Innovación Docente. Universidad de Deusto, 2022
Edita: Grupo de Comunicación Loyola, Bilbao
ISBN: 978-84-271-4509-2

BUENAS PRÁCTICAS DE INNOVACIÓN Y CALIDAD

X Jornada Universitaria de Innovación y Calidad:

“El desarrollo de la formación integral del alumnado a través de la innovación docente”

Lan-zuzenbidea online eta Deustuko Unibertsitateko Ikaskuntza Ereduari jarraituz ikas-irakasteko esperientzia

Arrieta Idiakez, F.J.



DATOS GENERALES

Nombre de la/s titulación/es implicada/s: Zuzenbideko gradua.

Asignatura/s implicada/s: Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea.

Destinatarios: 3. mailako ikasleak.



DESCRIPCIÓN, OBJETIVOS Y DESARROLLO METODOLÓGICO DE LA PRÁCTICA INNOVADORA

Descripción:

ALUD plataforman Deustuko Unibertsitateko Ikaskuntza Ereduko fase bakoitza sortu da, eta euretariko bakoitzean egoki jo diren lanabesak jaso dira, kasuan kasuko helburuak lortzeko.

Objetivos de la práctica:

Praktikaren xedea da Deustuko Unibertsitateko Ikaskuntza Eredua online garatzea, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea irakasgaiari dagokionez.

Metodología (fases, actividades y cronograma):

Fases y actividades:

Esperientzia-testuingurua

Ikasleak motibatu eta horiek aldeztu aurretik izan ditzaketen ideiak jorratu behar den gaiarekin lotzeko helburuarekin, bi bideo eta hiru prentsa-albiste jaso dira kasuan kasuko esteken bidez.

Lan-kontratuaren subjektuen eta objektuaren inguruan sor daitezkeen egoera gatazkatsu batzuen berri ematen da horietan. Horiek guztiak lagungarri dira jorratu beharreko gaiaren edukira hurbiltzeko.

Hausnarketarako Behaketa

Ikasleek ikusi dituzten bideoen eta irakurri dituzten prentsa-albisteen inguruan gogoeta egitea da helburua. Horretarako, ikasleei eskatzen zaie, batetik, identifikatzea euren ustez lan-kontratuaren inguruan aipatzen diren erakunde juridikoak, eta, bestetik, nabarmentzea euren ustez erakunde juridiko horien inguruan sor daitezkeen gatazken gaineko bizpahiru ideia.

Hori guztiori gauzatu ahal izateko, Padlet aplikazioa baliatu eta horma edo mural librea sortu da.

Bertan, ikasle bakoitzak bere iritziak jaso ditu.

Irakasleak, oniritzia ala gaitziritzia eman dio ikasle bakoitzari, oharrak edota gomendioak eginez.

Erabilitako aplikazio horri esker, ikasle guztiek irakurri ahal izan dute enparauek idatzitakoa.

Kontzeptualizazioa

Gaiaren inguruan jorratu den arauketa, doktrina zientifikoa eta jurisprudentzia sakon ezagutzeko helburuarekin, hurrengo eskuliburuaren berri eman zaie ikasleei: ARRIETA IDIAKEZ, F.J. *Lan Zuzenbidea*. Madril: Dykinson, 2021, 4. argitaraldia. Bertan, 3. gaia aztertu behar dute.

Halaber, izan ditzaketen iritziak jaso eta zalantzak argitzeko ALUD plataforman Partaidetzarako eta zalantzak kontsultatzeko Foroa sortu da.

Esperimentazio aktiboa

Ikasleek 5-6 pertsonako zazpi talde sortu dituzte.

Irakasleak 8 kasu praktiko jaso ditu, ikasleek aldez aurretik landutako edukiak aplikatzeko helburuarekin. Horietan, ikasleek erabaki behar dute, bibliografian, jurisprudenzian edota arauetan oinarrituta, lan-zuzenbidea aplikatzen den ala ez. Halaber, erabakiz gero lan-zuzenbidea ez dela aplikatzen, Lan Autonomoaren Estatutua aplika daitezkeen argitu behar dute.

Irakasleak sortutako talde guztietatik erdiei lau kasu eratziki dizkie eta beste erdiei beste lau kasu. Horretarako, talde bakoitzarentzako agiri bat sortu da Google Drive bidez.

Talde bakoitzak dagozkion kasuak landu ostean, lehenengo lau kasuak landu dituzten talde guztiek elkarrekin kontrastatu dituzte euren erantzunak. Beste horrenbeste egin dute beste lau kasuak landu dituzten taldeek. Horretarako irakasleak Google Driveko agiria partekatu du kontrasterako sortutako bi talde nagusietako bakoitzarekin.

Bi talde nagusietako emaitzak ikusgai jarri ditu irakasleak ALUDen.

Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez hiru maila berezi behar dira: maila pertsonala, prestakuntza-maila eta maila sumatiboa.

Maila pertsonalari dagokionez, ikasle bakoitzak ikasitakoaren inguruan gogoeta egin eta beraren gaitasunen, mugen eta motibazioen berri emateko helburuarekin, ALUD plataformak eskainitako lanabesak baliatuta, Ikas Egunerokoa sortu da.

Modu horretara, 3. gaiko fase desberdinetan sakondu ahala, eta fase horietariko bakoitzari begira, ikasle bakoitzak bertan jaso ditu: egindako lanaren deskripzio laburra, egin duen lanaren gaineko gogoeta laburra, lan egitean izan dituen arazo edo oztopoak, eta arazo edo oztopo horiek gainditzeko egin duena.

Prestakuntza-mailari dagokionez, irakasleak talde bakoitzak gauzatutako zeregin praktikoaren gaineko jarraipena egin du, ALUDera Google Drive bidez igotako agirietan zuzenketak eta oharrak eginez. Halatan, *feedback* hori ezinbesteko osagai bihurtu da ikasleek euren ikasketa-prozesua garatzeko. Bada, helburua da prozesu hori ahalik gehiena baliatzea eta hobetzea.

Maila sumatiboari dagokionez, ikasle bakoitzaren lana balioesteko helburuarekin, ikasleak kasuan kasuko kalifikazio akademikoa eman du.

Cronograma:

- Esperientzia-testuingurua: 30 minutu. Urriaren 28tik azaroaren 3ra.
- Hausnarketarako Behaketa: 45 minutu. Azaroaren 3tik 10era.
- Kontzeptualizazioa: 10 ordu. Azaroaren 3tik 10era.
- Esperientzia aktiboa: 5 ordu. Azaroaren 3tik 17ra (taldekako zeregina gauzatzeko); azaroaren 17tik 24ra (kontrastea egiteko).
- Ebaluazioa: Urriaren 28tik azaroaren 24ra (Ikas Egunerokoa prestatzeko) eta azaroaren 24tik 30era (kalifikazioak jartzeko).



RECURSOS HUMANOS Y MATERIALES

Giza baliabideei dagokienez, praktika egokia gauzatzeko ezinbestekoa da ikasleen eta irakaslearen arteko elkarrekintza.

Irakasleak aldeztu aurretik prestatu behar du unitate didaktikoa, online gauzatu ahal izateko moduan eta aurreikusitako denborak aintzat hartuta.


Ikasleek Deustuko Unibertsitateko Ikaskuntza Ereduari jarraituz unitate didaktikoa garatu behar dute, kasuan kasuko urratsak emanaz eta aurreikusitako denboran.

Irakasleak eguneroko jarraipena egin behar du, ikasleek ematen dituzten urratsak aztertzeko, ikasleek aurkez ditzaketen zalantza eta galderei erantzuteko, zeregin desberdinen gaineko oharrak egiteko eta, hala denean, kalifikazioak jartzeko.

Baliabide materialei dagokienez, Deustuko Unibertsitateko ALUD plataforma baliatzea ezinbestekoa da.

Plataforma horren baitan baliatu beharreko lanabesei erreparatuz gero, honako hauek dira kontuan hartu beharrekoak: bideoak, prentsa-albisteak, Padlet aplikazioaren bidez

gauzatutako horma librea, irakasleak prestatutako testuak, Google Drive aplikazioa eta ALUD plataformaren bidez gauzatutako Ikas Egunerokoa.



REFLEXIÓN Y VALORACIÓN

Evaluación de la Buena Práctica y lecciones aprendidas

Evaluación de la buena práctica:

Ikasle guztiek (38 ikaslek orotara) parte hartu dute Padlet bidez sortutako horma librean. Horrek esan nahi du Deustuko Unibertsitateko Ikaskuntza Ereduko faseen baitan, Esperientzia Testuingurua eta Hausnarketarako Behaketa sakon landu dutela ikasle guztiek. Hain justu, aurrez aurreko eskoletan fase horietan ez da bermatu ikasle guztien parte-hartzea. Are gehiago, ikasleek nabarmendu dute bideoak eta prentsa-albisteak lagungarri izan zaizkiela eta horma librearen teknika aproposa izan dela gaiarekin hasierako kontaktu praktikoa izateko.

Esperimentazio aktiboa gauzatzeko baliatutako talde-lanak Google Drive bidez egiteak ahalbidetu du:

- (a) Ikasleek elkarlaneko ikaskuntza gauzatzea.
- (b) Irakasleak ikasle bakoitzaren ekarpenak jarraitzea.
- (c) Denbora-errealean ikasleen arteko eta ikasleen eta irakaslearen arteko elkarreragina gauzatzea, kasuan kasuko oharrak eta zuzenketak egiteko.
- (d) Kontzeptu teorikoak hobeto ulertzea.


Ikas Egunerokoa baliagarri izan da, ikasle bakoitzak:

- (a) Ikasketa-prozesuan aurrera egin ahala bere aurrerapausoak antzemateko.
- (b) Autoikaskuntza hobetzeko.
- (c) Bere ikuspuntuak irakaslearekin partekatzeko.

Lecciones aprendidas:

Praktika honen ondorio nagusiak dira ikasleek ardura gehiago hartzen dutela eta ikaskuntza sortzeko prozesuan parte-hartze aktiboa dutela. Gainera, baliatutako lanabes teknologikoek elkarlaneko irakaskuntza ahalbidetzen dute, eta hori ere lagungarri da oso parte-hartze aktiboa sustatzeko.

Hala ere, horrek irakaslearen lana gehitzen du, Deustuko Unibertsitateko Ikaskuntza Ereduko fase guztietan ikasle bakoitzaren jarraipena egin behar delako. Egin-eginean ere, online ereduak hori berori ahalbidetzen du. Horregatik, eguneroko plangintzan denbora egokia aurreikusi behar da jarraipen hori behar den moduan egin ahal izateko.



REFERENCIAS

Marco conceptual y Referencia bibliográficas que apoyan esta buena práctica

Marco conceptual:

IKTen erabilerak Zuzenbideko graduko irakasgaietan hobekuntzak eta eraldaketak gauzatzea ahalbidetzen du. Horrek berarekin dakar eskola tradizional batean pentsaezinak diren proiektuak sortzea, bai eta ikasleen aukerak areagotzea eta ikasleak eurak ahalduntzea ere (Gimeno Ahis, 20220, 45. or.).

Esangura horretan, Hezitzaileen Gaitasun Digitalerako Europako Eredua hartu behar da kontuan (Redecker, 2020). Hurrean ere, horren xedea da gaitasun digitaleko ereduak garatzen dituztenei erreferentzia-esparru orokorra eskaintzea. Zehatzago, bere baitara bildu dituen sei esparruetatik hirugarrena irakaskuntzan eta ikaskuntzan oinarritu da, hain zuzen, horietan teknologia digitalen erabilera kudeatu eta antolatzen. Ildo horretatik, adierazi da teknologia digitalek irakasteko eta ikasteko estrategiak modu askotan indartu eta hobe ditzaketela. Edonola ere, nabarmendu da gaitasun digital berezia eskuratu dadin, hezitzaileak eragingarritasunez baliatu behar dituela teknologia digitalak ikasketa-prozesuaren fase eta egoera desberdinetan. Horrenbestez, irakaskuntza hartu da arlo horretako oinarritzko gaitasun gisa. Izan ere, irakaskuntzak bere baitan hartzen du teknologia digitalen erabilera diseinatu, programatu eta betearazteko ardura ikasketa-prozesuaren etapa desberdinetan.

Oraintsu, Covid-19aren krisia eta gero, Batzordeak, «2021-2027 Hezkuntza Digitalaren Ekintza Plana. Hezkuntza eta prestakuntza aro digitalera egokitzea» izenburuarekin, Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Erregioen Komiteari 2020ko irailaren 30ean egindako Komunikazioan [COM (2020) 624 final], nabarmendu du «erlaldaketa digitala bizkortzen ari den unean, ezinbestekoa dela hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak horrekin bat etorri egokitzea». Are gehiago, goraiatu da, trantsizio ekologikoa eta digitala gauzatu bitartean, garrantzitsua dela hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea eta inklusio-gaitasuna hobetzea, bai eta pertsona guztiek gaitasun digitalak eskuratzeko ere. Halatan, adierazi da, hezitzaileek teknologia digitala trebetasunez, zuzen eta eragingarritasunez baliatzen dutenean, ahalbide daitekeela ikaslea oinarri hartzen duen ikaskuntza pertsonalizatu eta malgua, hezkuntzako eta prestakuntzako ibilbideak dituen fase eta etapa guztietan. Gainera, uste da teknologia lanabes indartsu bezain erakargarria izan daitekeela elkarlaneko eta sorkuntzako ikaskuntzarentzako; azken hori lagungarri izan daiteke ikasleek eta hezitzaileek eduki digitalak eskuragarri izan, sortu eta partekatzeko. Halaber, adierazi da teknologiak ikaskuntza gelako hormetatik haratago gauzatzea ahalbidetzen duela, kokatze fisikoak eta ordutegiak eragiten dituzten mugen gainetik askatasun gehiago eskainiz.

Testuinguru hori abiapuntu, funtsezkoa da irakaskuntza-ikaskuntzarako lanabes teknologiko egokiak aukeratzea, horiek bateragarri egiteko Deustuko Unibertsitateko Ikaskuntza Ereduekin eta Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea irakasgaiarekin (ikus «deskribapena» atala). Zinez, sakondu behar da «etorkizunari begira eta etengabe metodologia berriak aplikatzeko dagoen beharrezan, lanabes digitalean oinarrituta, lortu ahal izateko kalitatezko irakaskuntza birtuala eskaintzea, hots, gure garaira egokitutakoa, etengabeko bilakaera duena eta irakaskuntzako alderik dinamikoena sustatzeko gai dena, ikasleen parte-hartze aktiboa bultzatuz ikaskuntza-prozesuan» (León Alapont, 2021, 40. or.).

Zehatz-mehatz, hurrengo lanabes teknologikoak erabili dira ALUD plataformaren bidez:

—Padlet. Aplikazio horren bidez horma librea sortu da, irakaslearen eta ikasleen arteko elkarreragina dinamikoa eta emankorra izan dadin. Orobat, elkarlanean aritu nahi da, iritziak trukatzuz edo partekatuz (Giler-Loor et al., 2020, 1343. or.).

—Google Drive. Erabilerraza delako baliatu da, inguru birtual batean elkarlaneko irakaskuntza gauzatzeko helburuarekin. Bestela esanda, lortu nahi da ikasleak ikaskuntza sortzeko gai izatea, eztabaidatuz, gogoeta eginez eta erabakiak hartuz (Sassano Luiz eta Martín Roda, 2019, 92. or.).

—Ikas Egunerokoa. Ikasleari eta irakasleari laguntzeko asmoarekin erabili da, bizitako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren norainokoez jabe daitezen (Rivera eta Trigueros, 2012, 112. or.).

Referencias bibliográficas:

- Gimeno Ahis, E. (2020). Hacia una competencia digital educativa. A.M. Delgado García eta I.M. Beltrán de Heredia Ruiz, (Koord.). *La docencia del Derecho en línea: cuando la innovación se convierte en necesidad*. Bartzelona: Huygens Editorial.
- Giler-Loor, D.J., Zambrano-Mendoza, G.K., Velásquez-Saldarriaga A.M. eta Vera-Moreira, M.T (2020). «Padlet como herramienta interactiva para estimular las estructuras mentales en el fortalecimiento del aprendizaje. *Dominio de las Ciencias*, 6. liburukia, 3. zk.
- León Alapont, J. (2021). La docencia en línea del Derecho: una propuesta práctica. P. Chaparro Matamoros eta F. Hernández Guijarro (Koord.). *La adecuación de la docencia presencial al estado de alarma derivado del Covid-19* Valentzia: Instituto de Derecho Iberoamericano.
- Redecker, C. (2020). *Marco Europeo para la Competencia Digital de los Educadores: DigCompEdu*. (Itzulpena: Fundación Universia y Ministerio de Educación y Formación Profesional de España). Secretaría General Técnica del Ministerio de Educación y Formación Profesional de España (Jatorrizkoa 2017an argitaratu zen).
- Rivera, E. eta Trigueros, C. (2012). El diario de aprendizaje. Un instrumento de ayuda en la autoevaluación del estudiante. *Journal of Movement and Health*, 13. liburukia, 2. zk.
- Sassano Luiz, S. eta Martín Roca, E. (2019). Google Drive para la docencia a distancia y en el aula. T. Vallet Bellmunt eta T. Martínez Fernández (Koord.). *Google Suite para la educación cooperativa* Castelló de la Plana: Universitat Jaume I.